

Martxan jarri  
berri dute  
Gazte Plana

Helburu, berdintasuna eta  
integrazioa lantzea ▶ 3



Harpidedunei banatua ▶ Asteazkena ▶ 2005-11-09 ▶ III. urtea ▶ 732. zenbakia ▶ [www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

## Tolosako Babarrunaren usain goxoa badator...

**TOLOSA ▶** Tolosako Babarrunaren XIX. Lehiaketa antolatu du Gure Kaiola elkarteak hilaren 20an

**IZEN-EMATEAK ▶** Etzi da azken eguna; egun bereko bazkarirako txartelak ere salgai daude jada ▶ 2

TOLOSA ▶

Iñigo Agirre  
gitarra  
jolea, Gure  
Txokoan

75. urteurreneko  
ekitaldien baitan ▶ 3

## Frankismo amaierara eta transizio girora itzuli da Juan Kruz Igerabide

**ADUNA ▶** 'Hauts bihurtu zineten' helduentzako lehen eleberria kaleratu du; lana idaztea «barne hustuketa» izan da ▶ 7



Iñaki Perurena, atzo. J. ASTIBIA

LEITZA ▶

Leitzaldeak  
ere ekarpena  
egin dio  
Euskal  
Curriculumari


«Gure herriaren iragana, oraina eta geroa erakustea da xedea», azaldu dute ▶ 5

ASTEASU-ANOETA ▶

## Pausoak ematen Agenda 21 egitasmoan

Asteasun batzarra egingo dute;  
Anoetan herenegun aurkeztu zuten ▶ 6

JON URBE / ARGAZKI PRESS



GASTRONOMIA ▶

# Tolosako Babarrunaren harira

Gure Kaiola elkarteak Tolosako XIX. Babarrunaren Lehiaketa antolatu du hilaren 20rako; Ferialekuan izango da, eta etzi da izena emateko azken eguna; egun eta leku berean herri bazkaria egingo dute

## IRATXE ETXEBESTE

Hemeretzi urte daramatza Gure Kaiola elkarteak Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoa antolatzen. Eta halaxe egin du aurten ere. «Hasierrako ilusio berberarekin ekin diogu beste behin ere antolaketa lanari». Hilaren 20an izango da, Tolosako Udalak antolatzen duen Babarrun Astearen barruan.

Ferialekuan izango da lehiaketa, 08:30ean hasita, eta prestateta eta aurkezpenak bukatuta egon beharko du, ezinbestean, 13:30erako. Ordu horretan erabakiko dute epaimahaiako kideek parte-hartzaileen puntuaketa. Ordu bete beranduago, 14:30ak aldera, herri bazkaria izango da, Ferialekuan bertan.

Lehiaketan parte hartu ahal izateko, baina, ezinbestekoa da gutxieneko baldintza batzuk betetzea. Antolatzaileek emango diete babarruna parte-hartzaileei, eta Tolosako Udalak hilaren 19an antolatutako lehiaketan lehen saria jasotzen duen ekoizlearena izango da. Kilo bat babarrun prestatu beharko du lehiakide bakoitzak; «nahi adina osagai erabil ditzaizkete, baina babarrunak izan beharko du nagusi», azaldu dute antolatzaileek.

Ferialekuan bertan prestatu beharko dute babarruna parte-hartzaileek, 08:30etik aurrera, eta «13:00etan izango da babarruna ateratzeko ordua». Babarruna antolatzaileek jarriko duten bezala, norberak eraman beharko ditu prestatzerakoan erabiliko dituen osagaiak. Gure Kaiola elkartearen esanetan, «arauak betetzen ez



Babarrun Astearen harira antolatu ditu Gure Kaiola elkarteak lehiaketa eta herri bazkaria. JOXEMI SAIZAR

## XEHETASUNAK ▶

Gure Kaiola elkarteak antolatuta, bi ekitaldi izango dira hilaren 20an: XIX. Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoa eta herri bazkaria. Ferialekuan izango dira biak ere. Hona hemen bi ekimen horien inguruko argibide batzuk:

### XIX. BABARRUN LEHIAKETA GASTRONOMIKOA

**Izen-ematea.** Etzi da azken eguna, Gure Kaiola elkartearen (Agintari kalea, 21).

▶ Orduetgia: 10:30etik 12:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

▶ Telefonoa: 607 67 27 09.

**Sariak.** Bi sari ezberdin banatuko dituzte: prestatetari dagokiona, batetik, eta itxurari

dagokiona, bestetik. Horieta atal bakoitzeko sari gehiago izango dira, gainera: prestatetan lehen bost sailkatuek jasoko dute, eta itxuran lehen hirurek. Prestaketa:

▶ Lehenengoak: 200 euro, garaikurra eta txapela.

▶ Bigarrenak: 165 euro eta garaikurra.

▶ Hirugarrenak: 130 euro eta garaikurra.

▶ Laugarrenak: 95 euro eta garaikurra.

▶ Bosgarrenak: 60 euro eta garaikurra.

▶ Lehenengoak: 100 euro eta garaikurra.

▶ Bigarrenak: 85 euro eta garaikurra.

▶ Hirugarrenak: 65 euro eta garaikurra.

### HERRI BAZKARIA

**Eguna.** Hilak 20, igandea.

**Non eta noiz.** Tolosako Ferialekuan, 14:30ean.

**Jatekoa.** Iberikoen dastaketa, Tolosako babarrunak lbarrako langostinoekin, odolkiarekin, azarekin eta urdaiarekin eta Ezeiza etxeko postrea. Ura, ardoa, kafea, kopa eta puroa ere sartzen dira.

**Prezioa.** 20 euro.

**Txartel salmenta.** Gure Kaiola elkartearen eskuratu ahal izango dira alde zurreratik egunero, 19:30etik 21:00etara. Egun berean, berriz, Ferialekuan izango dira salgai, 10:00etatik aurrera.

dituena deskalkifikatu egingo da». Halaber, epaimahaiaren erabakia «atzerazina» izango dela eta epaimahaiak erabakia eman ondoren babarrunak prestatzailei itzuliko zaizkiela azaldu dute.

«Udalak eta Gure Kaiola elkarteak aukeratutako biak barne, gehinenez 22 lehiakide hartuko dute parte, eta lehen-tasuna izango dute aurreko urteetan parte hartu ez dutenek. Kopurua handiagoa izanez gero, zozketa egingo dugu Gure Kaiola elkartearen egoitzan hilaren 11n [bihar], 20:00etan», diote elkarteak kideek. Arauetan zehaztuta dagoenez, iazko irabazleak ezin izango du aurtengo lehiaketan parte hartu, eta «lehiaketarako izena ematerako orduan sukaldariaren eta laguntzailearen izen-deiturak eman beharko dira».

### Bazkarirako txartelak

Lehiaketa bakarrik ez; herri bazkaria ere antolatu dute Gure Kaiola elkarteak urteroko moduan. Egun eta leku berean izango da, eta Tolosako Udalak antolatutako Babarrun Astearen baitan izaki, ohiko jankiak dastatu ahal izango dituzte bertara joaten direnek: Tolosako babarrunak. Hori bai, «askotariko osagaiekin» prestatuko dituzte antolatzaileek.

Bazkarira joateko txartelak eskuratu behar dira. Aldez aurretik Gure Kaiola elkartearen izango dira salgai —egunero, 19:30ak eta 21:00ak bitartean—, 20 eurotan, eta egunero bertan ere salgai jarriko dituztela iragarri dute elkarteak. Ferialekuan eskuratu ahal izango dira, prezio berean.

ZINE-KLUBA ▶

## ‘El señor Ibrahim y las flores del Corán’ filma eskainiko dute bihar Kultur Etxean

21:30ean hasiko da zinema emanaldia; 2 euro balio du sarrerak

### I. ETXEBESTE

Francois Dupeyron zinema zuzendari frantziarraren *El señor Ibrahim y las flores del Corán* filma izango da bihar, zine-klu-

baren baitan, Kultur Etxean; 2 euro balio du sarrerak.

Ibrahim izeneko musulmanaren istorioa kontatzen du. Auzo bateko negozio baten jabe da. Momo umezurtza bizi da

han. Umea kalean hazia da eta Ibrahimen adiskide. Filmaren ardatza adinekoaren eta umearen arteko adiskidetasuna bada ere, musulman eta judutar baten arteko harremana ager-

tzen da. Harreman hori ez da oztopo gisara ageri, baizik eta adiskidetasuna baldintzatzen ez duen berezitasun anekdotiko bat bezala.

Bestalde, aipatu behar da oso egoki deskribatzen duela orduko giroa, Pariseko 60. markadako urteetako giro atsegina. «Horrela, ikus dezakegu nola bizi den Momo eta nola aldatzen dituzten Kale Urdina eta Ibrahim jaunaren dena, bigarren etxe bihurtzeko etxe zaharrari eduki fisiko eta

sentimentala pixkanaka-pixkanaka kenduz», adierazi dute zine-klubeko antolatzaileek.

Ibrahimek umearekin konpartitzen ditu bakardadea, bizi-poza eta familia; hain zuzen, familia jaio ez baino egin egiten dela kontzeptuaren aldagai berri bat da.

Omar Shariff aktoreak interpretazio bikaina egiten du eta, horrexegatik, ikus-entzuleen saria jaso zuen 2003an Venezian, eta baita aktore onenaren 2004ko Cesar saria ere.

GAZTERIA ▶



Ekimenaren aurkezpenean, ezker-eskuin: Senobilla, Cereceda, Hernandez eta Urkiola. N. LATABURU

# Berdintasuna eta integrazioa lantzeko Gazte Plana, martxan

Gurasoei, gazteekin lan egiten dutenei eta gazteei zuzendu dute programa, 'Denon zeregina delako, ekin bideari' lelopean

NOELIA LATABURU

Gazteria sailak, Tolosako Udako Gizarte Zerbitzuek eta Berdintasunerako Zerbitzuek bat egin dute 2005-06 ikastur-tarako Gazte Programa osatzeko. *Denon zeregina delako, ekin bideari* lelopean, gurasoei, gazteekin lan egiten duten eragileei eta gazteei zuzendutako programa zabala aurkeztu zuten atzo prentsaurrekoan hiru sailletako ordezkariak. Hiru zeharlerrotan landuko dute, bada, aipatutako programa: genero berdintasuna, integrazioa eta hizkuntza normalizazioa, hain zuzen ere.

«Sail guztiekin hitz egin eta gizarte arloko asmoak ezagutu ostean, elkarlanean aritzeko aukera aurreikusitua genuen», azaldu du Berdintasunerako teknikari Jone Hernandezek. Horrela ekin zioten arlo guztiak uztartzeko ekimenari. Berrikuntzak izango dira plan honetan, bai eta orain arteko egitasmoak ere, beste ikuspegi bate-

IKASTAROKA ▶

Genero berdintasuna, integrazioa eta hizkuntza normalizazioa helburu duten ikastaroak antolatu dituzte, gazteei zuzenduak. Epea datorren astean zabalduko dute, eta informazio gehiago nahi izanez gero, gazte informazio bulegora jo daiteke, 943 67 03 83 telefono zenbakian edo gazteria@tolosakoudala.net helbide elektronikoa.

**Munduko gastronomiak.** Hil honen 18an, Kultur Etxean, izango da, Irazki elkartearen laguntzarekin. 20 euro ordainduta. Neska-mutil

bikoteka izena emanez gero, erdi prezioan.

**Kapoeira.** Azaroaren 19an hasiko da, 10:00etan, Kultur Etxean, 30 euroren truke. Neska-mutil bikoteka izena emanez gero, erdi prezioan.

**Cardio Kick-Box eta Aeroboxing-a.** Urtarrilean eta otsailen garatuko dira.

**Eskalada.** Josune Bereziartuak emango du ikastaroa; data zehaztu gabe.

**Serigrafia.** Data zehaztu gabe dago.

**Komikia.** Data zehaztu gabe dago.

**Sexualitate tailerra.** Apiriletik aurrera garatuko da.

tik landuta. Guraso topakete-kin batera bestelako ekitaldiak antolatuko dituzte, gurasoek haurren hezkuntzan duten pape- ra azpimarratu helburuz. Gazteekin lan egiten dutenei ere —kirol, aisi eta kultur talde-

ei— dei berezia egin diete, «neska-mutilen parte-hartze- an eta dinamizazioan berdintasunerako irizpideak txertatu ahal izateko». Urtxintxa eskola bideratuko ditu horretara- ko saio ezberdinak.

GIZARTEA ▶

## Gorren Komunitatearen II. Astea abiaraziko dute

Gaur hasi eta 12a bitarte Gainditzen-ek antolatu ditu sentsibilizazio ekitaldiak

N. LATABURU

Gainditzen, Tolosaldea-Goierriko pertsona gorren elkarteak, Gorren Komunitatearen II. Sentsibilizazio Astea antolatu du, gaur hasi eta 12ra bitarte. Honen harira, ekitaldi ezberdinak egingo dituzte gure eskualdean zein Goierrin. Helburu orokorrak gizarte osoari gorren komunitatearen berri ematea eta guztion laguntza behar duela jakinaraztea izango da. Ordiziako Barrena kultur etxean lan eta komuni- kazio oztopoei buruzko erakusketa jasoko du igandera bitarte. Tolosako TEEn egoi- tzan autoestima tailerrak ga-

ratuko dira, goizeko 10:00etatik aurrera, igandean. 20 la- gunentzako lekua izango du tailerrak, eta Gainditzen elkar- teko bazkideek lehenetsuna izango dute. Egun berean, eta 18:00etatik aurrera, Ordiziako Barrena kultur etxean *Pertsona gorren osasun mentala* izenpeko hitzaldia eskainiko du Javier Muñoz psikologoak, eta osasun mentala eta Espai- niako Gorren Elkartearen bu- ruak. Bertan zeinu hizkuntza- ko interpretea egongo da.

Hilaren 26an, halaber, *Mono- logos de la Vagina* lana antzeztuko dute zeinu hizkun- tza, Ordiziako zinetokian, 18:30ean, 3 euroren truke.

MUSIKA ▶

## Iñigo Agirreren gitarra kontzertua, Gure Txokoan

Elkartearen 75. urteurrenaren harira antolatu dute emanaldia, gaur, 20:00etan

N. LATABURU

Gure Txokoa elkarteak, bere 75. urteurrena ospatzeko an- tolatutako ekitaldien barruan, gaur, 20:00etan, Iñigo Agirre tolosarraren gitarra kontzer- tua eskainiko du elkartearen bitarte.

Agirrek eskainiko duen emanaldian 11 abesti joko ditu: Jorge Cardosoren *Milongo argentinarra*, Antonio Lan- zoren *Vals venezolanoa*, Leo Brouweren *Jugando a un estudio*, Agustin Barriosen *Ale- gro de la catedral*, Robert

Jonhsonen *Almari*, *Maitia non zira*, *Haurtxoa seaskan*, *Iru damatxo*-ren aldaketak, *Oina- zez*, *Itxasoa*, eta *Tolosako San Joan*.

Eskarmentu handiko gizo- na dugu Iñigo Agirre musika munduan: musikako Goi ikas- ketak burutu zituen, gitarra klasikoaren espezialitatean, Donostiako kontserbatorioan. Eduardo Baranzano, David Russell, Pradillo eta Brower gitarra jole ezagunekin aritu da, besteak beste. Egun irak- aslea da, bai eta Julia Leon eta Itzalak taldeko kide ere.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

**Gipuzkoan 50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK** Telf.: 943 65 56 95  
19:00ak arte hartzen dira [tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo)

hilberriak ▶

### Estanis Agirre Exposito

Atzo hil zen, 84 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

**-Goian bego-**

Artzai onak bere ardiak bezala, denak inguruan, izan zaitugu. Ziur egon ATTE aurrera ere horrelaxe izango gaituzu.

Zure seme-alabak

Haren arimaren alde otoiitz bat eskatzen dizuet, eta arren etor zaitetzela GAUR ASTEAZKENA, arratsaldeko 19:00etan Zarauzko Santa Maria la Real parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

helbidea: Araba kalea 9, 2A.

oharra ▶ hilbela Zarauzko tanatorioan dago. **SEGURA-ZARAUZT**, 2005eko azaroaren 9a



## ALDATU EUSKALTEL ENPRESARA, ETA AURPEGIERA ALAITUKO ZAIZU HIRU URRATSETAN



Negozioko mugikorraren arteko dei guztiak eta mugikor horietatik enpresako finkorako dei guztiak **0€-an**



Deiaren ezartze-kostua: **0€**



Eta bluetooth-a eta argazki-kamera dituen Sony Ericsson bat **0€-ren** truke



Galdetu **900 840 200** telefonora  
deituta edo **EUSKALTELEN SALTOKIETAN**



**+** Gainera, Euskaltel Enpresara aldatzen diren lehenbiziko 1.000 bezeroek bluetooth esku libreko kit hau izango dute opari.

**SONY ERICSSON K700i**  
Bluetooth/Argazki-kamera integratua/Hiru banda/PCarekin sinkronizatzea/GPRS/41 MB-ko barne-memoria.

**Q** Kudeaketa Bikoitzaumian Zilabreko Q sara bota duen Lehengo Telekomunikazio Operadorea

amena  
ouna



Promozioak 2005/11/30 arte iraungo du, eta telefonian mugikorreko estatu espainiako operadore batetik eramangarritasunarekin datozen bezeroen sferentziat bako du. 18 hitez irauteko konpromisoa duten eta modallatearen arabera guztiokoen konsumo-konpromisoa duten Enpresentzako Kontratu Libretatik, Unilatze-egitura mugatua: 1.400. Estatuak deialdi 0 €-ren Enpresentzako Kontratu Libreko mugikorraren eritasen eta hasieratik hautatutako finkora. Muga: 1.000 minutu hilean linea bakoitzeko. Esku libreko kitaren instalazio-kostua ez da sartzen prezioan.

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

# Gogotik saiatu bai, baina ezin punturik batu

Azken unean erabaki zen partida; jubenilak iaz bezain sendo aurten ere

ERREDAKZIOA

«Partida zirrargarria oso» larunbatean Ibarra areto futbol taldeak eta Carnicerias Saenz gasteiztarrek Belabietan jokatu zutena, Jose Manuel Tobias ibartarren prentsa arduradunak azaldutakoaren arabera. Iazan ere, azken minutuetan erabaki zen, eta kasu honetan etxeko taldearen alde ez baino, Gasteizkoen aldekoa izan zen emaitza.

Partida hasiera kaskarra izan zuen etxeko taldeak, defentsan egindako huts egite batez baliatu baitziren Carnicerias Saenz taldekoak 10 zenbakidun Eduardo jokalararen bitartez lehenengo gola egiteko. Jokaldi horretatik minutua ere igaro ez zenean, gasteiztarren 3 zenbakidun Mikel jokariak 0-2koa egin zuen. Baina markagailua ez zen bere horretan geratu, beste minutu bat nahikoa izan baitzuten bisitariak hirugarrena egiteko. Partida maldan gora jarri zitzaizkien, beraz, hasiera-hasieratik Cesar Rocaren mutileri.

Handik gutxira, Ibarra-koen jarrera aldaketa etorri zen, eta nagusitzen joan ziren pixkanaka; horrela, Unai Labaka izan zen Ibarra-koentzat lehendabizkoa sartu zuena. 1-3koa zen. Aukera dezente izan bazituzten ere, emaitza horrekin iritsi ziren atsedendaldira.

Bigarren zatian, guztia ematera atera zen etxeko taldea. Erasoari gogor ekin zion, eta bitartean gasteiztarrek defentsa lana egin beharra izan zuten. Hala ere, bigarren gola ez zen iritsi 33. minutura arte; Hautsi izan zen baloia sarera sartu zuena jaurtiketa baten bidez. Eta minutu bat igaro zenean berdinketaren gola iritsi zen. Kasu honetan, Unai Labakak bidalitako baloia saihesten saiatu zen Gasteizko taldeko

IBARRA ▶ 4

CARN. SAENZ ▶ 5

**Hasierako bostekoa.** Igor Zabalo; Hautsi Izagirre; Unai Labaka; David Prados; Ustaritz Errondosoro.

**Aldaketak.** Sinoe Sanz; Xabier Blanch; Mauro Ayerza; Fernando Ayerza; Lander Camio; Mikel Sanz.

defentsa bat, eta konturatu gabe bere atean sartu zuen. 3-3koa zen.

Bost minutu geratzen ziren partidaren amaierarako eta Carnicerias Saenz taldeko 9 zenbakidun Iñigo jokariak 3-4koa egin zuen. «Orduan, Cesar Roca entrenatzaileak atezain jokalaria ateratzea erabaki zuen; baina, hala ere, ez zen nahikoa, ez baitzuten asmatzen». Gainera, Gasteizko taldea izan zen beste gol bat egiten lehena, partidako bosgarrena, hain zuzen ere. Une horretan minutu erdia baino ez zen geratzen partida amaitezko, eta Ibarra-koen laugarrena egin ahal izan zuen Unai Labakak egindako jaurtiketa baten bidez. Ez zen besterik egiteko aukerarik izan, eta 4-5ekoarekin amaitu zen azkenean. Hori bai, gogotik saiatu ziren ibartarrak.

Jubenilak bikain

Jubenilen taldekoak, hau da, Juan Pablo Zubelzuren mutilak, berriz, badirudi pasa den urteko marxa dutela. Iazan ere, ez dute partida bakar bat ere galdu aurtengo denboraldian. Sestaoren aurka jokatu zuten larunbatean, eta 4-5eko emaitzarekin irabazi zuten.

**▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

'Zeuk idatzi'. Gure eskualdeari buruzko berriak jartzeko aukera ematen dizu gure webguneak **Zeuk idatzi** izeneko atalean. Animatu eta sartu zure berria denon eskura egon dadin. ▶





## HEZKUNTZA ▶



## Euskal Curriculumaren liburukoteari bere ekarpena egin dio Leitzaldeak ere

J. Astibia ▶ Atzo arratsaldean Leitzaldeak ere bere ekarpena egin zion herriz-herri dabilen Euskal Curriculumaren liburukoteari. «Kirolari handien herria» zioen Amazabal Institutuko ikasleek liburukoteari erantsi zioten orrialdeak, bertako harri-jasotzaileen zerrenda euren markekin, aizkolariak eta pilotariak aittatuz. Horren harira, Iñaki Perurenak eman zion hasiera ekitaldiari jasoaldi mordoska batekin eta, hitza hartu zuelarik, «premiazko» jo zuen, «ezkutuan eduki duten gure herri honen

iragana, oraina eta geroa erakustea», bere baserrian aurkitu berri duen silexezko aiztoa eskuan zuela, erabili zuten 100 kiloko harriak baino «pisu askoz ere handiago du 250 gramo besterik ez dituen honek, bere gainean gordeta baitu milaka urtetako gure herri honen historia» esanez, konparaziora. Igor Arroioek bere egin zituen adierazpenok «horixe da euskal curriculum, nola irakatsi gure lehena, oraina eta etorkizuna», esanez. Ondoren, Ingurutxoak dantzatu zuten ume eta gatetxoek. JAIONE ASTIBIA

## LEITZA ▶ GASTRONOMIA

## Talo jateak, hemen eta han asteburu honetan

Iruson eta Torrean izanen dira, etzi eta etzidamu; txartelak salgai daude jada

J. ASTIBIA

Hasi ez hasi, asteburu honetan bi lekutarako iragarrita daude talo jateak herrian: lehena Iruson dute egitekoa, bigarrena Torrean; bata ostira-lean, larunbatean bestea; biak 21:00etatik aurrera dira egitekoak; eta 15na eurokoak dira biak.

Horrela, bi afarietan eskaitzen duten menua ere antzekoa da: taloak «txistorra, hirugiharrea, gazta eta txokolatetz lagunduta», zehaztu dutenez, gaztain erreak, «nahi haina sagardo edo ardorekin bustiak», kafea eta kopa; Torrean, hasi, porru-patatekin egiteko asmoa duten bitartean, Iruson, postretarako gazta, irasa-

garra eta intxaurrak ere izanen dituzte.

Beraz, etzi iluntzean, Irusura joan nahi duenak, bertara deitu besterik ez du egin behar, honako telefono zenbakira, 948 39 70 35ra, eta lekua jasotzeko adierazi; alabaina, Torrera joan nahi duenak txartela erosi besterik ez du egin behar, hara bertara joan da.

Aukeratu, edo bietara joan, horra argitu beharreko zalan-tza. Edozein moduz, astebururako iragarrita dagoen neguaren etorrerako eguraldi hotzari, talo jateekin berotasunez aurre egiteko aukerarik ez dagoenik ezin esanen da. Ondorenak ere halaxe izanen dira, ziur.

## LEITZA ▶ FUTBOLA

## Baztanen aurrean ezin izan du irabazi

Aurrerak 3 eta 1 galdu du asteburu honetan, gol aukera politak sortu arren: bi zutoin eta aurkako penaltia, aurkari

JAIONE ASTIBIA

Elizondon jokatu zuen honetakoan Aurrerak; Baztanen aurka, iaz Liga irabazi zuen taldea, eta gogotsu eta ongi jokatu bazuen ere, zortea ere ez zuten lagun izan. 3 eta 1eko emaitzarekin bukatu zen partidua larunbatean.

Punturik gabe itzuli zen, beraz, talde leitzarra baztandarren zelaitik. Eginahalak egin zituzten eta zelaian «ongi» aritu ziren lanean, halaxe adierazi

ziguten atzokoan taldeko jokalariek: «Aurreneko zatian zelaian ongi kokatu ginen, eta joko polita egin genuen, nahiz golik ez lortu. Bigarrenean, ordea, gol aukera asko sortu genituen, gureak izan ziren ia guztiak», zioten, «baina ez genuen batere zorterik ere izan», adierazi zuten. Izan ere, partidua etxeratzeo aukerak izan zituzten leitzarrek, Jabi Urtiagak zutoinera bota zituen bi jaurtiketak horrek ispilu. Partidua bukatzeko hamar minutu

falta zirela, Mikel Azpirozek sartu zuen Aurreraren larunbat honetako gol bakarra, jokalarientzat aurtengo denboradaldiko aurreneko gola ere izan zena, bestalde. Geroztik, Baztanen alde adierazitako penalti «ez hain garbi bat», bertan zeudenen iritzirako, ere izan zen, partiduari azken errematea eman ziona.

Leitzarrentzat galtzen zuten bigarren partidua izan zen larunbatekoa, aurtengo denboraldia dagokionez.

## iragarki laburrak ▶

## LANA

Psikomotrizista. Amezketako Guraso Elkarrekin psikomotrizista behar du. Deitu 665 70 71 80 telefono zenbakira.

Emakumea. Emakumea behar da Ibararako, etxeko lanak egin eta ume bat zaintzeko, 09:00etatik

14:00etara. Telefono zenbakia: 627 52 99 47.

## SALGAI

Etxebizitza. Alegian, 120 m2 dituen etxebizitza salgai. Guztiz berritua. San Joan kalean. Interesatuak deitu 609 47 30 81ra.

**Bai Euskarari Ziurtagiria ezagutzen al duzu?**

Bai Euskarari Ziurtagiriaren bidez, 800 enpresa, kateak, dendak, jatetxe... eta ere gutxietsiko errotate baino gehiagik euskararekin duten konpromisoa adierazten dute.

[www.bai.euskarari.org](http://www.bai.euskarari.org)

**Bai Euskarari Ziurtagiria!**

**902 430026**

**Aintzat hartu euskararekin konprometitzen dena!**

hitza

ASTEASU ▶ AGENDA 21

# Herritarren iritzia jasotzeko herri batzarra egingo dute

Bihar izango da hitzordua ikus-entzunetarako eraikinean; Agenda 21eko beste ekintza batzuk ere burutu dituzte

ERREDAKZIOA

Ernioaldeko Udaltalde 21-eko partaideetako bat da Asteasu. Agenda 21 ezartzea du helburu egitasmo horrek, eta pixkanaka ekintza ezberdinak burutzen ari dira. Hurrengo herri batzarra izango da, eta bihar bertan egingo dute, ikus-entzunetarako eraikinean, 19:30ean.

Bilera honetara herritar guztiak daude gonbidatuta. Egun diagnostikoa burutzen ari dira, herriaren datu objektiboak jasoz. Bileraren helburua herritarrek Asteasuri buruzko iritzia ematea eta, horrela, diagnostikoa osatea da. Bileraren ondoren lunch-a izango da udaletxeko bilkura aretoan.

Beste egitasmo batzuk ere martxan dira herrian Agenda 21aren inguruan. Aurreko astean bi ekintza burutu zituzten. Alde batetik, ostegunean Pello Errota ikastetxeko guraso elkartearekin bilera izan zuten, eta bertan Agenda 21ari buruzko azalpena egin zen. Gurasoen gehiengoak zerbait positibotzat jo zuten proiektua, baina bestelako iritzia ere izan ziren. Adibidez, guraso batek Asteasun Agenda 21a ezartzeko interesa berandu iritsi dela aipatu zuen. Herritarrek parte hartzea deitu gabe, Asteasuk



Nolako Asteasu nahi duten marraztu zuten haurrek. HITZA

jasandako aldaketa handiak aipatu zituen. Bestalde, telefono bat irekia egotea ere interesgarri iruditu zitzaion.

Ostiralean, berriz, herriko 50 haur eta 20 guraso inguru bildu ziren *Nolako Asteasu nahi dugu?* lelopean egindako marrazketa saioan. Kale dinamika horrekin herriko ume eta gurasoengana Agenda 21eko kontzeptua helarazi nahi izan zuten. Marrazki bidez zer nolako Asteasu nahi duten adierazi behar zuten. Gurasoen parte-

hartzeara handia izan ez bazen ere, umeek kartulinetan etorkin zunean Asteasurako nahi zuten hura marrazten aritu ziren: aisialdirako eremuak, igerilekuak... Eta, era berean, mural batean haien garrantzi handienekoak ziren elementuak marraztea eskatu zieten. Gurasoei Agenda 21 proiektuari buruzkoak era erraz batean azaldu zizkieten eta, era berean, haietako batzuk seme-alabei zer marraztu adierazten saiatu ziren.

ANOETA ▶ AGENDA 21



Herenegun arratsaldean egindako bileraren une bat. I. GARCIA

## Agenda 21 egitasmoaren aurkezpena egin dute

IMANOL GARCIA

Agenda 21en aurkezpena egin zuten herenegun arratsaldean udaletxean. Udalbatzako zenbait kide eta udal teknikariak, Ondoa enpresako kide bat, Laia eta Kalezka enpresako ordezkariak—Agenda 21 egitasmoa herritarrei hurbilduko diete kale-ekintzeekin—, Ikastolako zuzendaria eta zazpi herritar izan ziren.

Agenda 21a udal kudeaketa hobeto antolatzeko tresna dela azaldu zuten eta herritarren parte-hartzea oso garrantzitsua dela zehaztu zuten. Partaidetza hori mahai teknikoen eta herri batzarren bitartez gauzatzen joango da. Hiru mahai tekniko osatu dituzte. Ekonomia ardatz izango duen mahai teknikoaren bilera datorren asteartean, hilak 15, izango da; ingurumenaren eta mugikortasunaren inguruko bilera, hilaren 17an; eta gizartearen mahai teknikoaren bilera, hilaren 28an. Herri batzarra edo herritarren foroa hilaren 29an egingo dute. Bilera guztiak udaletxean eta 19:30ean izan-

go dira. Mahai teknikoetan parte hartzen dutenei aurre-diagnostikoa emango diete.

Bere aldetik, Anoetarrok Auzolanen herri plataformak adierazi duenez, «Udala herritarren parte-hartzeaz ari omen denean, azken bi urteetako egoera bestelakoa da: hainbeste anoetar baztertuta daude Udalean, udal batzarrek ez parte-hartzaileak izatearren, ez-ohizkoak egiten dituztenean». Herri plataformak gaineratu duenez, «AHTren inguruan Udalak ez du nahi izan eztabaida gauzatu eta herritarren iritzia ez du aintzat hartu; eta, beraz, inposaketa bat egiten ari dira». Bestalde, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia aipatu dute: «Orain bi urte presaka onartutako hain plan ponpoxoa egun karpeta baten barruan apalean dagoen egitasmoa da. Agenda 21i gauza bera gertatzeko arriskua dago». Plataformak gaineratu duenez, «benetan parte hartzerik balego, Eusko Jaurlaritzatik bultzatutako egitasmoa izan beharrean herritarrek sustatutakoa izango litzateke, Udalean dauden teknikariak baliatuz».

iragarki laburrak ▶



**Aduna.** 608 m<sup>2</sup>-ko pabilioa alokairuan, garabi-zubiarekin, bulegoak jarrita.  
**Albiztur.** Bi zatitan banatutako

baserrian, zati-tako bat salgai. Hiru solairu, bakoitza 200 m<sup>2</sup>-koa. 35.000 m<sup>2</sup>-ko lur-saila. Telf.: 943 655 587 edo 669 36 89 94.  
**Andoain.** Berritutako etxebizitza altua, ikuspegi bikainak, igogailua eta terrazan solariumarekin. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.  
**Anoeta.** Estreinatzeko, etxebizitza duplexean, 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, terraza eta garajea aukeran. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.  
**Asteasu.** 2 solairuko pabilioa salgai edo alokeran, 1050 m<sup>2</sup> eta 250 m<sup>2</sup>-ko solairuarte, modu guztietako tresnekin eta hobekuntzekin. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.  
**Beasain.** 45 m<sup>2</sup> erabilgarriko apartamentua eta lokal komertziala

salgai. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.  
**Berastegi.** 100 m<sup>2</sup>-ko bi solairuko borda, berrikuntza behararekin, 75.000 m<sup>2</sup>-ko lur-sailak, 35 eta 50 urtetako alertze-pinuarekin. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.  
**Berrobi.** 100 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, berrituta, trasteleku handiarekin. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.  
**Berrobi.** 50 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai, planta baxuan. Berritua. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.  
**Bidanía.** Erantsitako azken txaleta, eraikitako 160 m<sup>2</sup>. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.  
**Légorreta.** 3 hektareako lur-saila, sarrera onarekin. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

**Lizartza.** Eraikuntza berriko 14.000 m<sup>2</sup> pabilio salgai, 920 m<sup>2</sup>-ko azken moduluak. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.  
**Segura.** Eraikitzen ari diren erantsitako 14 txalet, 297.500 eurotik hasita. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.  
**Tolosa.** Belate pasealekua, 4. solairuko etxebizitza, 70 m<sup>2</sup>-koa. Kanpoaldera, igogailuarekin eta trastelekuarekin. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.  
**Tolosa.** Santa Klara kalean, 90 m<sup>2</sup> dituen etxebizitza, berritua. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.  
**Tolosa.** Apataerrek, duplex berritua, garajearekin eta lur-sailarekin. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel kalean azken apartamentua, eraikuntza berrikoa, 65 m<sup>2</sup> erabilgarriak. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.  
**Tolosa.** Zumalakarregi kalean hirugarren solairuan berrituko etxebizitza salgai. Berritua, 3 edo 4 logelatako aukera. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.  
**Tolosa.** Zumalakarregi kalean, 150 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, egoera ezin hobean, garajea aukeran. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.  
**Tolosa.** Tren-geltokiko zonaldean 105 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. Garajea eta lorategia. Telf.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.  
**Tolosa.** Alokera-ko etxebizitzak ere baditugu. Bulegoan norbanakoarentzat informazioa.

ADUNA ▶ KULTURA

# Bizi puskak

Frankismo amaierako eta transizioko girora itzuli da Juan Kruz Igerabide idazle adunarra helduentzako lehen eleberri honetan, irakasle aurrerazale baten drama kontatu eta barruko obsesioei beste bira bat emateko


AINARA GOROSTIZU - BERRIA

Joxerra Garziaren hitzak hona ekarriz, behorak antxumea egin du. Bai, Juan Kruz Igerabidek (Aduna, 1956) nobela egin du. Lehen eleberri honetan, ordea, betiko obsesioak dabilta bueltaka 40tik gora liburu argitaratuak dituen idazleak, «barruko harria» darabil jiraka. «Aforismoetan, poemetan edo nobelan, jendeak sentitzen, sufritzen eta gozatzeko duena interesatzen zait».

*Hauts bihurtu zineten* (Alberdania) idazteko, frankismo garaiko azken urteetara eta transiziara itzuli da Igerabide. Euskal Herriko auzo txiki batera, «Obabatik gertukoa», Inazio Mujika Iraola editorearen arabera. Egileak aurreratutak duenez, «digiaren eta mailuaren garai hartan» nerabe eta gazte izandako narratzaileak, Juantxo, Adela maistra aurrerakoiaren drama kontatuko du: «Adela gerraren alaba da, drama familiarik dator: familia errepublikanoa du, POUmen ibili zen aita; bera maistra egin zen, eta garaiko gatazkak harapatzen du bete-betean; PCKo ekintzailea da eta errepresioa sufritzen du. Maitasun kontuak ere badaude, Adela bere ideologia aplikatuko baitu, baita maitasunean ere».

Juantxo narratzaileak badu Igerabiderengandik bizitako puskak biziberrituko ditu, baina «modu autonomoan» jokatzen du: «Ez du nik garai hartan jokatu nuen bezala jokatzen; agian orain, orduan jokatzea gustatuko litzaidakeen bezala jokatzen du». Ugariak dira desberdintasunak: «Garai hartan ni bera baino gehixeago jabetzen nintzen ustez, oso argi neukan nire jarrera eta klase kontzientzia: kapitalismoa bota eta langileriaren diktadura ipini nahi genuen, baina ez Txinan eta Errusian bezalako, noski, baizik eta guztiz garbia, eta nazio txikiak berpiztuko zituen eta lur planeta komunismo zoriotsu biziko zena».

Garaia, garaiko giroa eta garaiko giro politikoa loturiko hausnarketekin josi ditu Juan txo ikaslearen eta Adela maistraren bizitako gertaerak Juan Kruz Igerabidek. Eta baita pedagogiari loturiko gogoetekin ere, Adela irakasle baita, adunarra bezala. «Pedagogia



Juan Kruz Igerabidek (Aduna, 1956) politikari nahiz pedagogiari buruzko hausnarketekin josi ditu Juantxo ikaslearen eta Adela irakaslearen bizitako puskak. JON URBE / ARGAZKI PRESS

aurrerazale baten alde inplikatu du maistrak bere burua, besteak beste, hezkidetzaren alde egingo du. Orain, zapalduaren pedagogia edo askatasunaren pedagogia aldarrikatzen emaitzen eta norgehiagoka miserable baten zerbitzari bihurtzera pasatu garan».

Gogoetengatik dio Joxerra

Garzia adiskide, irakasle eta idazleak obsesio etiko-moralen gainean egindako hausnarketa filosofikoz beteriko nobela honekin aforismo liburu bat edo poema liburu bat egin litekeela. «Obsesio errekorre asko dago, eta obsesio horiek obsesiotzar edo makro-obsesio daude bihurtuak, eta hori da nobela». Eleberri poetiko

honetan «generoen mestizajea» goraiatu du Garziak. Hala ere, bere iritziz, «irakurketa gozamenezkoa» da Igerabideren obsesioek sorturiko munduan barnatzea.

## Barne hustuketa

Obsesio horiek guztiak paperaren gainean jarri nobela hau

## MAMIA

«Aforismoetan, poemetan edo nobelan, jendeak sentitzen duena interesatzen zait»

## FRANKISMO GARAIA

«Ustez, argi nuen nire jarrera: kapitalismoa bota eta langileriaren diktadura ipini nahi genuen»

## PEDAGOGIA

«Zapalduaren pedagogia eskatzen, norgehiagoka baten zerbitzari izatera pasatu gara»

idaztea «barne hustuketa» izan da Igerabiderentzat, «kontatu dudana nire historiaren pusketa bat da». Egin dituen guztien artean, gazteentzat idatzi zuen *Hamabi galdera pianoari* (Alberdania argitaletxea, 1999) liburuarekin du antzekotasun handiena liburu honek, hura ere barne hustuketa bat izan baitzen, amaren galeraren inguruan. Eleberria bizi puskaz bete eta osatua dagoen arren, nobela ez da autobiografikoa, «nobelaren erakuntzak agintzen du nola erabili kronika historikoa; fikzioa da agintari».

Obsesio horien gainean egindako hausnarketekin ez du irakurlearen kontzientziak asintzeko asmorik —«nahikoa lan badut neure kontzientziarekin!»—, baina elkarrizketa bultzatu nahi luke irakurlearekin. Horrela, bide batez, elkarrizketan jarriko litzuke hainbat egile, «ahazten ari zaizkigun eta interesatzen zaizkidana eta hunkitzen nauten egileak», haiei eginiko keinuz josia baitago liburua. Imanolen oihartzuna sarreratik entzun daiteke, Mikel Arregiren «Zuek, hil zineten / atomo huts, hauts bihurtu zineten...» kantuan, hain zuzen. Torturaz hil zuten Joxe Arregiri ere egin dio keinu, eta baita Panizori, egilearen ballarako «torturatzaile handienari» ere.





Harpidedunei banatua ▶ 2005eko azaroaren 9a, asteazkena ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

17

hotzena

12

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zailantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Berrobi.** Jon Ander Izagirreraren omenezko XIV. Frontenis Txapelketan izena emateko bihar izango da azken eguna. Udalebtean, Iriarte tabernan eta Iturriza dendan, eta Tolosako eta Donostiako Aralar Kirolak dendetan egin ahal izango da. Txapelketa hilaren 19an hasiko da.

**Leaburu.** Bide Eginez batzarra egingo dute bihar, 20:00etan, gazte gelan. Azken 4 urteetako balantze politikoa eta Batasunak aurrerantzean defendatuko duen ildo politikoa aztertuko dira.

**Tolosa.** Engomadora Moderna enpresako langile ohiek bazkaria egingo dute Fronton jatetxean hilaren 12an. Izen-ematea, 943 67 46 69, 943 67 19 43 eta 943 65 19 55 telefono zenbakietan.

**Tolosa.** Mus Azkarreko V. Txapelketa izango da hilaren 12an Beotibar pilotalekuan, 16:30ean, lau erregetara. Izen-ematea, Fronton kafetegian, 30 eurotan.

**Tolosa.** Amaroako dantza taldeak euskal dantza ikastaroak antolatuko ditu. Ostegunetan izango dira, 20:30etik 21:30era, auzo elkarteak egotiz.

**Tolosa.** Sodupe-La Arboleda irteera antolatuko du Alpino Uzturrek iganderako. Izen-ematea, elkartearen (Gudari 5, behea. 943 65 27 89). Bazkideek 10 euro ordaindu behar dituzte, eta bazkide ez direnek 12 euro.

**Villabona.** Herriko web orriak euskaratzeko diru laguntzak emango ditu Udal Euskara Zerbitzuak. Informazioa eta izen-ematea, bertan eta 943 69 35 01 zenbakian. Hilaren 18a bitarte.

**Villabona.** Aizkardi elkarteak antolatuta, Opakua-Azazeta irteera izango da igandean. Izena emateko, deitu 943 69 44 58 telefonora edo Aizkardiren lokalera azaldu, bihar, 21:00etatik 22:00etara.

### ERAKUSKETAK

**Alegia.** Argazki Lehiaketako lanak daude ikusgai udaletxeko ganbaran, 11:00etatik 12:30era eta



## Amezketako aparkaleku berrian azken ukituak

**HIRIGINTZA ▶** Amezketako Udalak hil bukaerarako aparkaleku berriko lanak amaiturik egongo zirela aditzera eman zuen. Oraindik langileak lanean ari dira, baina aparkalekua prest izateko oso gutxi falta da. Beharbada, datorren astean lanak bukatuko dituzte; orain azken ukituak ematen ari dira. Bien bitartean, dezente ikusmina altxatu dute herrian egiten ari diren obrek. Amezketako haurrak eta helduak dira, batik bat, langileen jarraitzaile handienak. MARTA SAN SEBASTIAN

na bukatuko dituzte; orain azken ukituak ematen ari dira. Bien bitartean, dezente ikusmina altxatu dute herrian egiten ari diren obrek. Amezketako haurrak eta helduak dira, batik bat, langileen jarraitzaile handienak. MARTA SAN SEBASTIAN

19:00etatik 20:30era.  
**Alegia.** Tolosan bizi den Txaro Medrano pintore nafarraren erakusketa, Jubilatuen tabernan ikusgai.  
**Hernalde.** Pakita Barrero donostiarraren 20 olio-pintura daude ikusgai Ostatuan: bodegoiak, paisajeak, basoak, loreak, Albizturko eliza, Donostiako Kontxa eta Alderdi Eder lorategiak...

**Tolosa.** Oargi mendi elkartearen Mendiko Hamabostaldian, euskal mendizaletasunaren historiari buruzko argazki erakusketa, elkartearen.

**Tolosa.** Mari Carmen Azaldegi tolosarraren pintura erakusketa dago Fronton kafetegian.

**Tolosa.** Magrebeko II. Jardunaldiak: Inñaki Edrosoren *Magreb-a: herri eta kamioien bidegurutze* erakusketa Kultur Etxean.

### ZINEMA

**Alegia.** *Cosas que no se olvidan.* 21:30ean, Gaztetxean.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

#### Gaur

**Areso.** Goizueta, F. Loidi Etxea. 112.  
**Ibarrar.** Ugarte, M. T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## AGURRAK ▶



**URTE ASKOAN**  
Miren Izagirre Elizaran.  
Gaur 7 urte. Zorionak ebekoan partetik.



**HITZA,**  
zorian agurren  
tarteak

Urtebetetzeak,  
urrezko ezteiak,  
ezkontzak, jaioberriak...  
zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia  
bi egun lehenago ekarri.  
Mila esker!